

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroa, Gipuzkoa eta Euskal Hirigune Elkargoko agintariek partekatzen dituzten ibaiak era koordinatuan kudeatzeko konpromisoa berretsi dute

*Euskal Hirigune Elkargoak hartu du Bidasoa, Urumea, Oria, Errobi eta Urdazuri ibaietako ur partekatuen kudeaketaren Gutunari buruzko jarraipen batzordearen lehendakaritza*

Astelehena, 2018.eko ekainak 18

Nafarroako Gobernuak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskal Hirigune Elkargoak, Uraren Euskal Agentziak, Pirinio Atlantikoetako Departamentuak eta Aturi-Garonako Uraren Agentziak Irunen berretsi dute gaur goizean partekatzen dituzten mugaz gaindiko ibai-arroak batera kudeatzeko konpromisoa: Bidasoa, Urumea, Oria, Errobi eta Urdazuri ibaiak.

Ekitaldi berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskal Hirigune Elkargori eman dio "Partekatutako uren kudeaketa gutunaren" jarraipen batzordearen lehendakaritza. Baliabide hidrikoen kudeaketa administrazioen arteko lankidetzaren sustatzeko konpromiso hau 2014an sinatu zen, partekatutako ibaietako ura iraunkortasunez, zuzentasunez eta era koordinatuak erabiltzeko asmoz.

Nafarroako Gobernuak Ekonomia Zirkularren eta Uraren Zerbitzuko zuzendari César Pérezek nabarmendu duenez, "mugaz gaindiko lankidetzaren mekanismoak indartu eta ibaien kudeaketa iraunkorrako eta eraginkorrako aldeko lankidetzaren jarraitu behar dugu, klima-aldaketara egokitzearen aldeko konpromisoa hartu dugun eskualde bezala posizionatzeaz gain, horixe baita gizateriak gainditu beharreko ingurumen-erronkarik handiena, betiere klima-aldaketaren efektuei aurre egiteko erresilientzia hobetzeko asmoz".

Bestalde, Gutuna sinatu duten sei erakundearen ordezkarien arteko gaur goizeko saioa gidatu duen Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako diputatu José Ignacio Asensiok adierazi duenez, "hemen gauden guztiok partekatzen dugun ura bezalako balio handiko baliabide honen baterako kudeaketa nahitaezkoa izango da datozen urteotan aurreikuspen zientifiko guztiek iragartzen duten klima-aldaketaren testuinguruko erronkei aurre egin ahal izateko".



Mugaz gaindiko ibai-arroen kudeaketaren berrespeneko parte-hartzaileak.

Datorren urtea arte lehendakaritza izango duen Euskal Hirigune Elkargoko lehendakariorde Kotte Ecenaroren hitzetan, “2019a garrantzi goreneko urtea izanen da. H2Ogurea proiektua bukatu eta ekintza-plan berri bat abiarazi beharko dugu egun batzen gaituen mugaz gaindiko dinamikarekin jarraitu ahal izateko”.

“Partekatutako Uren Kudeaketa Gutunak” lankidetzaz-esparru zabal-zabala ezarri du sinatzaileen artean, honako alderdi hauen inguruan: uren eta ekosistema akuatikoen kalitatea, edateko uraren horniketari nahiz bainatzeko urei lotutako alderdi sanitarioak, uholde-arriskuei aurre egiteko segurtasuna eta baliabidearen erabilera eraginkorra eta eskariaren kudeaketaren sustapena.

Orain arte, akordio honen babespean, era askotako baterako ekintzak egiten ari dira; hala nola, edateko uraren horniketa eta kalitatea hobetzea Dantxarinearen inguruan; gure ibaietan eta ibaibazterretan ugaritu diren flora eta faunako espezie inbaditzaileen aurka borrokatzea; Bidasoaren beheko aldeko uholde arriskua prebenitu eta kudeatzearen arazoari aurre egiteko ikerlanak lantzea. Ekintza horiek guztiek europar funtsetatik etorritako finantzaketa garrantzitsua lortu dute, lankidetzaz esparru honetara ere hedatu baita. Honela, 2016an, Europako agintariek egun gauzatze-aldian dagoen H2Ogurea proiektua onartzea lortu zen.

Etorkizun hurbilera begira, gutunaren sinatzaileek urari buruzko eskuduntzak dituzten beste administrazio eta erakunde batzuen inplikazioa bultzatu nahi dute, eta horrekin batera, Europako erakundearen kofinantzazioa lortu nahi dute Bidasoa ibaiaren nazioarteko tartean dauden ur-emariak zaintzeko aurreikusita dagoen neurketa-estazioa eraiki ahal izateko.

Bileraren bukaeran, bertaratutakoek banaka garatu eta gainerakoek interesekoak izan daitezkeen urari buruzko hainbat proiektu aurkeztu dira. Horien artean nabarmendu dira Nafarroako Gobernuaren LIFE NADAPTA proiektua, klima-aldaketara egokitzeko politika era integratuan, koherentean eta barneratzailean inplementatzea xede duena, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren LIFE LEMA proiektua, toki agintariek itsasoko zaborrak bildu eta era adimendunean kudeatzea helburu duena.